

SE DÉPLACER • MUGITU • MUDÀ'S



Améliorer les mobilités du quotidien, pour réduire le temps de transports tout en limitant leur impact sur notre santé et l'environnement.



Errepideetako kongestioa eta autoak osasunean eta ingurumenean duen eragina badira ere, autoaren erabilpena biztanleen kopurua baino gehiago emendatu da, oinezko ibiltzea eta txirrindola apaltzen direlarik Mugikortasunen sindikatuak finkatu helburuei begira. Garraio publikoen hobekuntza ez da aski joera honen alderantzizatzeko.

Norabide aldaketaren hautua egiten dugu sozial, mugikortasuna ez dadin gehiago belaunaldi edo ahalmen urriko arrazoiengatik bazterketa faktore izan eta auto ilaretan denbora gehiagorik ez galtzeko.

Gure proposamenak:

a. Mugikortasunen Bulegoa sortu

Mugikortasun politika arloan zeharkakotasun beharrari erantzutea eta Baionan bizi edo bertara joan behar duen pertsona orori (adin guzietakoak, diru sarrera edo auzotegiak kontutan hartu gabe) autonomia handiagoa ematea xede du Mugikortasunen bulegoak. Haren iritzia eskatuko zaio mugikortasunetan eragina duten herriko proiektu guzietarako, eskoletako gurasoak eta elkarteak sarraraziz. France Travail eta Txik Txak-eko aretoen baitan antolatu permanentzien bitartez, eta Biztanleen Etxeekin lankidego hertsian, harrera zuzena eta pertsonalizatua eskainiko du talde dedikatuarekin.

- Biztanleak eta profesionalak haien mugikortasunean lagundu (praktiken diagnostikoa, mugikortasun plana, aterabideen ikuskatzea, laguntzak eta primak...).
- Mugikortasun ezteiei eta garraio publikoei formakuntza/hezkuntza saioak, bai eta eremu publikoa partekatzeko sentsibilizatze ekintzak garatu..
- Autokidetza gure praktketan errotzen lagundu: harremantzea, bide dedikatuak ireki, aparkaleku pribilegiatua, baliokidetza finantzatzeko plana berriz abian ezartzeko egokitasuna.
- Egunerokoan agertu zailtasunak seinatu (gaizki doituak diren suak, erabiltzaileen arteko gatazkak, espaloi ez bukatuak, arrisku eremuak...) segurtasun handiagoa ekartzeko joan-etorrietan, bereziki oinezkoetan.
- 2030ean aurreikusi ZFE-aren indarrean sartzeko epea (hunkitu familiak eta plantan ezarri beharreko dispositibo ziblatuak identifikatu) eta autoen elektrifikatzea (birkargatzeko guneen garapena...) aitzinatu.

b. Baiona hiri ibilgarria bilakarazi

Joan-etorriak egiteko lehen moldea da ibilketa, naturalena eta inklusiboena, bertutetsuena izateaz gain: osasun fisikoa eta burukoa laguntzen ditu ibilketak, jendeen arteko lokarria azkartuz eta beste garraio molde desberdinak lotuz. Alta, hiri barnetik eta ardatz nagusietatik kanpo, espaloiak usu ez dira zainduak, aldagai doiketa baten gisara hartuak izanik, publiko ahulenekiko – haien lekua eremu publikoan tipitzen ikusi duten adineko pertsonak, mugikortasun urriko pertsonak bezalako elbarrituak, haurrak edo haur karrosak dituzten familiak - ikustaterik gabe.

- Garraio molde desberdinen arteko lehentasun arauetara buruzko mezu argia zabaltzeko, erabiltzaileen arteko gatazka irudipena apalarazteko: ibilketa > txirrindola > garraio publikoa > banakako autoa.
- Oinezko ibilbide segurtatuen jarraipena egiaztatu, oztoporik eta jarraikitasun ezik gabe, pertsona ahularentzat bereziki. Auzotegi guzietan, saltegiak eta zerbitzuak bai eta bus/tram'bus geldilekuek heldutako bideak segurtatu.
- Hiriko antolaketa elkarbizitza (joko eremuak, aulkiak, aterpeak, landareztatzea...) azkartzeko gogoetatu.
- Auzotegi desberdinen arteko ibiltzeko denbora eta bide egokiak berri emateko afiztatzea eta seinaleak ezarri eremu publikoan.

c. Bizikleta azpiegiturak eraiki.

Txirrindolari esker Baiona eta inguruetako eguneroko joan-etorriak egiten dira. Abantaila ekonomikoak ekartzen ditu ere garraio molde honek: dirua aurrezkitzen die erabiltzaileei bezainbat kolektibitateari ere. Hala ere, honen garapena geldotzen dute bizikleta bide jarraiki eta segurtaturik ez izateak, intermodalitate mugatuak busekin edota horren erabilpena sustatzeko formakuntza eskasak.

- Bizikleta bide sarea azkartu lotura jarraiki eta lurreko seinaleak segurtatu loturen bitartez.
- Autoen zirkulazioa lasaitu errepide txirrindulariek eta auto gidariek segurtasun osoz parteka dezaten.
- Gune beltz nagusiak (San Izpirtu zubia, Herriko Etxea, Castoramako biribilgunea...) desagerrarazi eta aparkalekuak garatu (Merkatu estalian, tren geltokian eta garraio publikoetako geldileku nagusietatik hurbil, Gaskoinen plazan, Paul Bert plazan...).
- Txirrindola alokatze zerbitzu handinahia (trizikloak bezalako mota orotariko txirrindola eskuragarri gehiago...) sortu beharreko Txirrindolaren Etxearen baitan eta formakuntzak plantan ezarri.

d. Garraio publiko sarea fidagarriagoa bilakarazi eta inguruko auzotegiekiko lotura hobea ezarri.

Garraio publikoak zinezko alternatiba bilakatuko dira maiztasuna gehiagorekin, ordutegi fidagarriekin denbora errealean eta erabiltzaileen eguneroko beharrei erantzuteko sortu ibilbideak plantatuz. Nahiz eta azken urte hauetan hobekuntzak izan diren, baldintza hauek ez dira ezarriak izan. Bestalde ere, ez dira iragarriak izan diren bezainbateko tram'busei dedikatu biderik eraikiak izan, lurren erabilpenak eragin oztopoen eta agertu finantza hertsadurengatik.

- Garraio publikoen urrikikotasuna azkartu eta lineen maiztasuna puntako tenoreetan bai eta Txik Txak aplikazioan eta bus geldilekuetan (afitxatze numerikoa) agertu denbora errealeko ordutegien fidagarritasuna emendatu.
- Jadanik dauden lineak doitu (joan-jileak, busak tram'busak) eta trazatu berriak aztertu, Mugikortasunen Bulegoaren bitartez bildu beharrekin loturan, besteak beste bus gehiago inguruko eremuetara buruz (Cam de Prats, Arrousets, Habas, Prissé eta Sequé) edota ere lotura zuzena BAB-ko hiri barne eta ikastetxeen artean.
- Pragmatismoa lehenetsi kongestio gune nagusien kopurua apalaraziz ram'bus linea berria bezalako prestigioiko operazio berriak abian ezarri baino t).
- Trenari dagokionez, gure AHT-aren aurkako jarrera berretsi, eguneroko ibilbideen aldeko proiektuak lehenetsi eta tren geldileku bat aitzin-ikusi Glain-en edo Maignon-en.
- Laster errepide geltokia antolatu Lesseps Kaian beharrezkoak diren zerbitzuekin (afitxatze panela, aterpe eta aulkiak, komun publikoak, autoak instant batez aparkatzeko guneak, txirrindola aparkalekua).
- Tren geltoki zentral eta intermodal baten eraikitzea aztertu.
- Bitarteko aparkalekuen erabilpena inguruetan azkartu, ikusgarriagoak eta prezioak eta bidea egiteko denbora mailan erakargarriagoak bilakaraziz.

e. Karrika partekatze molde berriak esperimentatu

Badu zenbait hamarraldi orain hirigintza antolaketak autoari leku nagusia utzi diola, beste garraio moldeen kaltetan, herritarren parte bat arrunt baztertuz. Eremu publikoaren partekatze bidezkoagoa eta inklusiboa denen artean test entseguak egitea da erronka. Trafikoaren jarotasuna puntako tenoreetan berriz aztertze aukera eskainiko du ere aldaketa horrek, errepide ardatzak molde iraunkorrean libratzeko.

- Aparkatze prezioen egokitzea esperimentatu (adibidez bisitari prezioen emendatzea eta diru sarrera apaleko familientzat, laguntzaileentzat bai eta autokidetzarako, bizitzaile prezioen egokitzea).
- MUR eta eskuetaratze tokien erabiltzearen errespetua gehiago zaindu.
- Lanean hasteko eta eskuetaratze ordutegien antolaketarako test-entseguak egin, eskuetaratze mutualizatu modalitateak aztertu, besteak beste kongestioa eta soinu kalteak mugatzeko.
- Marracq auzotegiko zirkulazio plana berriz ikusi puntako tenoreetako joan-etorriak arintzeko.
- Autoetarako zentzu bakarreko iragaitea esperimentatu San Izpiritu zubian.
- Eguberriko merkatuaz baliatu Gotorleku/Herriko Etxearen sektorea, eta bereziki San Izpiritu Zubia, desmotorizatze.
- Eskolekin elkarlanean, Péd'i'bus / Vélo'bus planak apailatu eskolara oinez edo txirrindolaz segurtasun osoz joateko eta eskola karrika bat esperimentatzeko (klaseen irekitze eta hesteko tenoreetan sarbide nagusiaren aldi bateko oinezkatzea) Denboren Bulegoaren kariatara.
- Egun oso batez autorik gabeko test-entseguak egin zenbait igandez urtean animazio bereziekin, eremu publikoa bizi, lagunartekotasun eta joko esparrua berriz bilaka dadin.